



**4 urterekin, 4 gaixotasunetatik** babestuko duten **bi txerto** jarriko zaizkio bisita berean:

- Elgorriaren, Errubeolaren eta Parotiditisaren aurkako txerto konbinatua.
- Barizelaren aurkako txerto bat, 2015eko urtarrilaren 1a baino geroago jaiotakoei.



## Gaixotasunen eta txertoen ondorioen alderaketa

Gaixotasuna	Gaixotasunaren ondorioak	Txertoaren eraginkortasuna*	Ondorio kaltegarriak
<b>Elgorria</b>	Sukarra, errinitisa, estula eta exantema. Bronkopneumonia eta erdi belarriko otitisa (%10). Entzefalitisa (1.000 kasuko 1). (%15 heriotza eta %25 ondoren neurologikoak). Ez hain ohikoa: Panentzefalitis esklerosatzaile subakutua. Hilgarritasuna (%0,05).	<b>%98,1-98,9</b>	<p>Gorritasuna injekzioaren eremuan, sukarra &gt;37,5°C (≥%10). Goiko aire-bideetako infekzioa, azaleko erupzioa, mina eta hantura injekzioaren lekuan (%1-9).</p> <p>Mina, gorriunea (%10-20). Barizela motako rasha (%1-5). Txertoaren ondoko Zosterra (2,6/100.000 dosiko).</p>
<b>Errubeola</b>	Sukarra, exantema, linfadenopatiak, artralgiak. Arrisku handiago: errubeola haurdunaldiaren lehen hiru hilabeteetan pasatzen duten emakumeak. Sortzetiko errubeola-sindromea hardunengan (%65-85) fetuaren malformazioak.	<b>%90,6-100</b>	
<b>Parotiditisa</b>	Sukarra, listu-guruin bat edo bat baino gehiagoren hantura (parotida). Orkitisa gizonengan (%20-30). Obarioen hantura emakumeengan (%5). Gutxi batzuetan antzutasuna. Gortasuna (100.000 kasuko %0,5-5). Inoiz edo behin entzefalitisa.	<b>%94,4-99,3</b>	
<b>Barizela</b>	Infekzio bakteriano sekundarioak (kasuen %5-10). Zosterra (68/100.000 kasuko). Konplikazio larriak heldunengan.	<b>%94-99</b>	

\* Txerto guztiak, antigorputzen maila azken dositik hilabetera.



# CALENDARIO VACUNAL INFANTIL DE EUSKADI 2016



**Sarampión**

**Rubéola**

**Parotiditis**

**Varicela**